



GAIA: BEKAK

Familia agurgarria:

Hezkuntza Departamentutik abisua jaso dugu hemendik aurrera bekak on line egingo direla. (**Bakarrik Mozilla Firefox nabigatzailearekin**)

Epea: Urriaren 1etik 31era

Eskaerak modu hauetan egin daitezke:

- a) **BAKARRIK NAN ELEKTRONIKOA BADUZUE:** Departamentuaren web orrian sartu (<http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus>) Bekak, laguntzak eta diru-laguntzak, unibertsitatez kanpoko ikasleak, erregistroa bete, eskaera egin eta zuzenean bidali.
- b) Departamentuaren web orrian sartu (<http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus>) Bekak, laguntzak eta diru-laguntzak, unibertsitatez kanpoko ikasleak, erregistroa bete, eskaera egin **inprimatu eta institutura ekarri beharrezkoa den dokumentazioarekin.**
- c) Institutuan ordua eskatu (tfnoa. 94 681 04 61) eta hemen bete. Beharrezkoa den dokumentazioa ekarri behar duzue.

Hezkuntza Departamentuak bideo informatiboa eskegiko du IKASTEIA plataforman:
<http://www.ikastea.hezkuntza.net>

Aurkeztu beharreko agiriak

Beka-eskabidearekin batera, honako agiri hauek aurkeztu behar dira:

- a) Guraso bakarreko familien kasuan: hitzarmen erregulatzailearen fotokopia. Konpentsazio-pentsioaren egiaztagiri eguneratua, hala badagokio, eta seme-alabentzako elikagai-pentsioarena. (Diru-sarreraren fotokopia. Familia-egoitzan bizi diren kideen errolda-agiria eta, hala badagokio, aitaren edo amaren ezkontidearen edo bikotearen diru-sarrerak.
- b) Gizarte-laguntzak jasotzen dituzten kasuetan: dagokion erakundeak emandako ziurtagiria. (RGI jasotzen baduzue ez da derrigorra)
- c) Diru-sarrera salbuetsiak badituzte: ezintasun iraunkor absolutuaren edo baliaezintasun handiko pentsioaren ziurtagiria, zurtasun-pentsioarena, kaleratzearengatiko kalte-ordainena, etab.



d) Harrera-familetan diren ikasleen kasuan, harrerari buruzko foru-agindua eta aldundiak erabakitako harrerako baldintzak.

e) Bizikidetzaren unitatearen diru-sarrerak eta ekonomia-egoera adierazteko, eskatzaileak garrantzitsutzat jotzen duen edozein agiri: lanetik botatzea, enplegu-erregulazioko espedienteak, dohaintzak (behar bezala erregistratuak), etab.

f) Matrikulan adierazitako datuetan edozein aldaketa egonez gero (helbidea, seme-alaben kopurua...) beharrezkoa den agiria aurkeztu behar da (familia liburua, familia-egoitzan bizi diren kideen errolda-agiria...)

g) Eskatzailea izango da eskabidean ematen duen informazio ekonomikoaren erantzulea, eta legez behartuta dago bizikidetzaren edo familia-unitatearen diru-sarrera guztiak egiaztatzeke agiriak aurkeztera. Eskatu den laguntza ukatu ahal izango da, baldin eta bizikidetzaren edo familia-unitatearen bizi-baliabide guztiak egiaztatzeke agiriak aztertuta Administrazioak uste badu egiaztatu diren diru-sarrerak bizikidetzaren edo familia-unitatearen gastuak baino txikiagoak direla aurkeztu den informazioaren edo kanpoko datu batzuen arabera.

Errenta-aitorpena Euskal erkidegoan egiten baduzue ez dago errenta agiria aurkeztu beharrik.

BESTE KASUAK:

1.- Errenta-aitorpena beste erkidegoren batean aurkeztu, edo aurkezturiko aitortzearen beren diru-sarrera guztiak adierazi ez dituzten bizikidetzaren unitateek honako agiri hauek aurkeztu beharko dituzte aurreko ataletan adierazitakoez gain:

a) 2015eko ekitaldiko eusle nagusiaren errenta-aitortzearen fotokopia guztiak eta, hala badagokio, zerga horrekiko aitortzearen egin beharra duten gainerako kide konputagarrienak. Langile autonomoak izanez gero, jardueraren etekinak kalkulatzeko deklarazio-orri bat ere aurkeztu beharko da.

b) Kide konputagarri guztiak lortutako diru-sarrerak egiaztatzen dituzten agiriak: gizarte-laguntzak jasotzen badituzte, dagokion erakundeak egindako ziurtagiria; diru-sarrera salbuetsiak, zenbatekoak direla-eta aitortu gabeko diru-sarrerak, balore higigarrien errendimenduak, banku-gordailuak, kontu-korronteen interesak...

c) Profesional eta enpresaburuek aurkeztutako ordainketa zatikatuen aitortzearen fotokopiak.

2.- Pertsona fisikoaren errentaren gaineko zergaren aitortzearen aurkezteko betebeharririk ez dutenek dagokion administrazioak emandako agiri bat aurkeztu beharko dute, betebeharririk ez dutela egiaztatzen duena. Hori hala izanik ere, eskatzaileak aurkeztu beharko ditu: kide konputagarri guztiak lortutako diru-sarrerak egiaztatzen dituzten agiriak (gizarte-laguntzak jasotzen badituzte, dagokion erakundeak egindako ziurtagiria; diru-sarrera salbuetsiak; zenbatekoak direla-eta aitortu gabeko diru-sarrerak; balore higigarrien errendimenduak; banku-gordailuak, kontu-korronteen interesak...) eta profesional eta enpresaburuek aurkeztutako ordainketa zatikatuen aitortzearen fotokopiak, baita artikuluko honen lehenengo zenbakian jasotako informazioa ere.